

2008ko apirilaren 7an UDALBATZAK EGINDAKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA.

3. Zk.

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 18,30tan, Udalbatzarra bildu da.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: IGOR ITURAIN IBARGUREN

ZINEGOTZIAK : 1.- MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLA

2.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ

3.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE

4.- BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL

5.- ANTXON GOMEZ LORENTE

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: ITZIAR AZURTZA-SORRONDEGI

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aurreko Aktak onartu .

Idazkariak idatzitako 2008ko otsailaren 13ko Akta onartu da.

2.- Frontoiaren beirazko itxitura obrako kristalak eta beiraren instalazio edo muntaia esleitzea

Frontoiaren beirazko itxitura obra Echeveste enpresarekin etetea erabaki zuen Udalbatzak 2008ko otsailaren 13an eta ondoren, Alkateak, gelditzen ziren lanak, bukatu beharra zegoenez, ALBISU KRISTALDEGIA enpresaren eskaintzaren berri eman zuen, ezaugarriokin:

Lehen faseak, ezaugarri hauek ditu:

- a) Exekuzio epea: 2-3 aste
- b) Hasiera eguna: 2008ko otsailak 18, astelehena
- c) Egin beharreko lanak: neurketak, perfila taladratu eta garabi alokairua.
- d) Aurrekontua: 14.412.-euro (BEZ kanpo)

Bigarren fasearen ezaugarriak honexek dira:

- a) Exekuzio epea: 5 aste
- b) Hasiera eguna (zehaztu gabea) : 2008ko martxo bukaeran
- c) Egin beharreko lanak: Beiraren instalazioa

d) Aurrekontu gutxigorabeherakoa (aldagarria): 121.500.-euro (BEZ kanpo)

Eta, jarraian, hain zuzen ere, erabaki zen, bukatu gabe utzitako lanekin aurrera jarraitu ahal izateko, “ALBISU kristaldegia” enpresari esleitzea goian aipatutako lehen fasea. Beraz, orain, bigarren fasea esleitu beharra egongo litzatekela adierazi du Alkateak. Bigarren fase honi dagokion proposamena (2834-zabaldua 5-zenbakidun faktura) hauxe da:

- a) Exekuzio epea: 5 aste
- b) Hasiera eguna : 2008ko maiatzak 6.
- c) Egin beharreko lanak: Beiraren erosketa eta instalazioa
- d) Aurrekontua:
 - Beira: 80.523.-euro (BEZ kanpo)
 - Beiraren instalazioa: 107.108.-euro (BEZ kanpo)

Idazkariak ohartarazi du guztira 205.000.-euroko kopurua iristen denez, indarrean dagoen kontratu lege testu bateratuan ezarritakoarekin ez datorrela bat esleipen modu hau, 121 eta 141 artikulua kontuan izanik.

BOZKETA: Alde: 4; Abstentzioa: 3; aurka: 0.

AKORDIOA: Udalbatzak, gehiengoz, onartu du ALBISU KRISTALDEGIA enpresari esleitzea herriguneko frontoiaren beirazko itxitura obrako “beiraren erosketa eta instalazioa” atala, .-eurotan.

3.- Urola Kostako Auto-Taxi zerbitzuaren 2008ko tarifak

Alkateak 2007ko abenduaren 12an jakinarazi zituen Urola Kostako Taxi Batzordeak 2008 urterako proposatutako tarifak. Udalbatzarkideek, garestiegi zirelakoan, erabaki zuten azalpen sakonagoak eskatzea. Mankomunitate buruarekin hitzegin ondoren, argitu du tarifa hauek hiri lurzoruan direla ezartzekoak, ez landa inguruan, horregatik Aia bezalako udalerrri bati ez diola aldaketa handiegirik eragingo. Bestalde, azpimarratu nahi izan du, Mankomunitate mailan gaineko udalerriek baiezkoa eman diotela tarifa igoera honi. Aldaketok hauek dira:

1 eremuan

2007 urtean	2008 urtean
Gutxieneko tarifa: 2,9051.-euro	4,3242.-euro
Kilometroko: 0,9101.-euro	0,9228.-euro
Zain egote ordua: 17,3888.-euro	17,62.-euro

2. eremuan

Gutxieneko tarifa: 2,9051.-euro.	5,1474.-euro.
Kilometroko: 1,4515.-euro	1,4718.-euro.
Zain egote ordua: 27,3268.-euro.	27,70.-euro.

Azkenik, oroitarazi du gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilaldia barneratzen duela eta bost minutuko zai-egotea.

AKORDIOA: Batzarkideek ahobatez onartu dituzte 2008 urterako Auto Taxi tarifa berriak, Urola Kosta Mankomunitateko Taxi-Batzordeak proposatu moduan.

4.- Kutzako kontseilari izendapena

Aiako Udalbatzak 2008ko urtarrilaren 30ean onartu zuen, gehiengoz, Kutxa finantza erakundearen gobernu organuen hauteskudeari begira Tolosa, Oñati, Mutriku, Getaria, Mendaro, Ataun, Lazkao, Hondarribi eta Elgoibar udalekin batera agrupazioa eratzea. Orain udal-talde honen ordezkariak izendatu behar dira. Proposatutako hautagaiak zerrendatutako hauek dira:

- Lehen kontseilari titularra: Aitor Kerejeta Cid jauna
Honen ordezkoa: Bittor Oroz Izagirre jauna
- Bigarren kontseilari titularra: Josebe Astigarraga Lete anderea
Honen ordezkoa: Andoni Aristi Ibarra jauna

BOZKETA: Alde 4; abstentzioa:3; Aurka: 0.

AKORDIOA: Aiako Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Aiako Udalak osatutako agrupazioaren izenean Kutzako kontseilari titular eta ordezkoak ondoren zerrendatutakoak izendatzea: Lehen kontseilari titularra: Aitor Kerejeta Cid jauna eta honen ordezko, Bittor Oroz Izagirre jauna. Bigarren kontseilari titularra: Josebe Astigarraga Lete anderea eta honen ordezko, Andoni Aristi Ibarra jauna .

5.- Aiako hirigintza plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspen agiriari dagokion Testu Bateratua ontzat eman eta Foru Aldundira igortzea onartu

Gaizka Perosterena Arregi jaun arkitektuak eta Patxi de Assas jaun abokatuak eraturako lantaldeak 2008ko apirilaren 2n aurkeztu dute udal bulegoetan Hirigintza plangintzako berrikuspen-Testu Bateratua. Hau honako agiriek osatu dute:

A-Memoria;

B-Hirigintza Arau orokorrak-Ordenantzak;

C- Ondare katalogoa;

D-Hirigintza Arau partikularrak- Fitxak;

Planoak

(I.2,-katalogatutako elementuak; I.3-Pagoeta; I-6-Egitura organikoa; 0.1a-Lurzoru sailkapena-lurzoru urbanizaezinaren kalifikazio orokorra; 0.1b- Lurzoru sailkapena-lurzoru urbanizaezinaren kalifikazio orokorra; 0.2-egitura organikoa; 0.3a-ibai-ibilgu eta uholde-arriskugarritasuna; 0.3b-muga itsas-lurtarra eta hezeguneak; 0.4-a-lurzoru sailkapena-herrigune, Andatza, Aranguren, Elkano, Urdaneta; 0.4-b-lurzoru sailkapena- Santio Erreka, Olaskoegia, Zudugarai; 0.5.-a-Hirigintza interbentzio eremuak-herrigunea, Andatza,Aranguren, Elkano, Urdaneta; 0.5-b-hirigintza interbentzio eremuak-Santio Erreka, Olaskoegia, Zudugarai; 0-6-a-kalifikazio orokorra-herrigunea, Andatza, Aranguren, Elkano, Urdaneta; 0-6-b-Kalifikazio orokorra- Santio Erreka, Olaskoegia, Zudugarai; 0-7-a-kalifikazio zehatza- herrigunea, Andatza, Aranguren, Elkano, Urdaneta; 0-7-b-kalifikazio zehatza-Santio Erreka, Olaskoegia,Zudugarai).

Idazkariak azaldu du Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak 2007ko azaroaren 6an behin betiko onarpena eman zionean Aiako hirigintza plangintzako arau subsidiarioen berrikuspen agiriari, akordioaren lehen atalean zazpi baldintza ezarri zituela (GAO 2007ko azaroak 14). Laburbilduz, besteak beste, honakoak:

1.- Ekainak 30eko 2/2006 legera egokitu beharra, orohar.

2.- Lurzoru urbanizaezinean : bost baldintza gai hauei buruz: 1) Pagoetako hagina; 2) Azaleko uren babes eremua; 3) Altzolarantz erreka eta mustela bisoi europarraren plana; 4) Zona Hezeen Lurralde

Plan Sektoriala betearaztea; 5) Ingurumen eragin txosten behin-betikoak adierazitakoa jaso beharra erabilerak zehazterakoan lurzoru urbanizaezinean.

3.- Hiri lurzoru eta urbanizagarrian: Eraikuntza eta urbanizazioaren gutxieneko erretiroak, ibai eta erreka-ertzen lurralde plan sektorialari egokitu beharra eta “azterketa hidraulikoaren “ arabera burutu beharra hirigintza antolaketa.

4- Egitura orokorra: Oria ibaiaren ezkerreko portu-gunearen hirigintza araudia jaso beharra eta Espazio libreen sistema orokorra osatzen duten elementu guztiak zenbatu eta mugatu beharra.

5.- Hirigintza arauak: espreski aipatu beharra “ingurumen-eragin ebaluazio-bateratuaren azterketak” proposatutako neurri zuzentzaile zein superbisio programa jasoko direla plangintza garatzen duten baldintza teknikoen pleguetan.

6.- Hirigintza Fitxak: Orohar, agiri osoari begira adierazpen bat egiten da: 4,8 eta 18 zenbakidun eremuen hirigintza erregimena jaso beharra dago eta baita kontsolidatutako hiri lurzoruaren hirigintza erregimena ere edo inolako hirigintza interbentzio eremutan sartuta ez dauden lurzoruena. Bestalde, eremu jakin batzuetan akats zuzenketak ohartarazi dira.

7.-Kultur ondarea: Gorostiola-Aizpitarte eta Mañarinzelai baserriak Monumentu izendapena jaso beharra eta Gipuzkoako estazio megalitikoak planoetan mugatu beharra, batez ere, 3. zenbakidun eremuan.

Oroitarazi du Idazkariak gainera, atal hauek denak islatzen dituen agiri bateratu hau Foru Aldundira igorriko dela honek argitara dezan eta beti ere, gogoan izan behar dela Testu Bateratu honetatik kanpo gelditzen direla, hiru eremu: Orioko Arraun Elkarte, Thalassa eta Zudugarai.

AKORDIOA: Aiako Udaltzako, aho batez, onartu du Foru Aldundiak 2007ko azaroaren 6an hartutako Akordioan eskatu zituen baldintzak jaso dituen Testu Bateratu hau, behin-betiko onartutako Hirigintza Arau Subsidiario Berrikuspena osatuz, Orioko Arraun Elkarte, Thalassa eta Zudugarai hirigintza interbentzio eremuetan izan ezik.

Bilera bukatu da eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2008ko apirilaren 23an.

IGOR ITURAIN IBARGURENek

MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLAK

MAITANE ARRILLAGA ALDALUREk

ANDER ARRILLAGA ALBENIZEk

ANTXON GOMEZ LORENTEk

MARI KARMEN EGURZA AGIRREk

NAIARA ESNAL HUEGUNEk

BITTOR SANCHEZ MENDIZABALEk

Itziar Azurtza-Sorrondegik,
Idazkari-kontuhartzaileak.